

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, ezaugarri bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta zaborra tasen errolda jendaurrean jartzea eta zergen bilketarako aldia

Honakoak ordaindu behar dituztenen 2025eko erroldak egin dira:

- Hiri ondasun Higiezinaren Gaineko zerga eta ezaugarri bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Aipatutako erroldak jendaurrean jarriko dira, interesdunek egokiak iruditutako erreklama-zioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, interesdunek errolda horiek udaletxeko idazkaritzan izango dituzte eskuragarri, jendearentzako arreta-orduetan.

Era berean, jende orori jakinarazten zaio araututako epea ordaindu ahal izango direla.

I. Ordaintzeko epea.

a) Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Borondatezko aldian zorra bi epetan ordainduko da. Bakoitzean, zerga-kuotaren ehuneko 50 ordaindu beharko da.

Lehenengo epea: borondatezko epealdia: maiatzaren 1etik ekainaren 30ra.

Premiamendu aldia: uztailaren 1etik aurrera premiamenduko betearazte bide administrazioa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

Bigarren epea: borondatezko epealdia: irailaren 1etik urriaren 31ra.

Premiamendu aldia: azaroaren 1etik aurrera premiamenduko betearazte bide administrazioa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

b) Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Araututako epea: maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte.

Premiamendu epea: uztailaren 1etik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamenduko betearazte bide administrazioa abiaraziko da, halaxe xedatzen baitu indarrean den dirubilketarako araudi orokorrak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta zutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, bankuko helbideratze-kontua aldatu ez badute. Udala ordainketa izapidetzeaz arduratuko da.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek kreditu-txartelaren bidez ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, "Nire ordainketa" (www.zigoitia.eus) ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango dute, edo, bestela, Kutxabank eta Euskadiko Kutxa erakunde laguntzaileen bulegoetan ordainketa-agiria aurkeztuz.

III. Aholkuak.

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2025eko apirilaren 1ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA